Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

**24/2010 EBAZPENA, MARTXOAREN 23-KOA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN LEHENDAKARIARENA, ALDI BATERAKO BEHARRIZANEI AURRE EGITEKO HKEE HONETAKO 26 MAILAKO AUDITOREEN LAN POLTSA ZABALTZEKO DENA.**

**IKUSIRIK.-** Beharrezkoa dugula aldi baterako Auditore Atxikitu postua betetzea, 542105 kodea, lanpostu zk. 9, A taldea, 26. maila eta derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna duena, harik eta karrerako funtzionarioak bete arte.

**GOGOAN HARTUTA.-** Behar hori aldi batean betetzeko bidea bitarteko funtzionarioa izendatzea dela.

**HAUEK HONELA.-** HKEEn 26 mailako auditore atxikituen lan poltsa dagoela, 79/2006 zk.ko Lehendakaritzako Ebazpen bitartez sortutakoa.

**HAUEK HONELA.-** Lan poltsa horretako izangaiei deitu zaiela, baina inork ere ez duela eskaintzarekiko interesik erakutsi.

**HAUEK HONELA.-** Badela Ekonomiketan edota Administrazioan eta Enpresen Zuzendaritzan Lizentziatutakoen beste lan poltsa bat, programako aldi bateko beharrizanak betetzeko osatu zena, 21 mailako programako funtzionarioena; bada, oinarri-arauetan 26 mailako auditore atxikitu lanpostua betetzeko erabiltzeko aukera aurreikusi zen.

**GOGOAN HARTUTA.-** Oinarri-arau horien 12. atalak aurreikusten duela *"kasua balitz eta 26 mailako plantilako plazak betetzeko indarreko auditoreen lan poltsa agortua balego, honako honek 3. lehentasuneko poltsa izaera izango du hango hartan"*.

**HAUEK HONELA.-** Aipatutako poltsan badirela derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizunaren betekizuna eta antzeko lanpostuan hiru urteko eskarmentua betetzen duten izangaiak.

Lehendakaritzaren Ebazpen bitartez Ekonomian edo Administrazio eta Enpresen Zuzendaritzan Lizentziatutakoen lan poltsa 3. lehentasuneko poltsa izendatzea dagokio plantilako plazak betetzeko edota 26 mailako bestelako lanpostu eta egitekoetan aldi baterako beharrizanak betetzeko.

**RESOLUCIÓN Nº 24/2010, DE 23 DE MARZO, DEL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS, POR LA QUE SE AMPLÍA LA BOLSA DE AUDITORES NIVEL 26 EXISTENTE EN ESTE TVCP PARA CUBRIR NECESIDADES TEMPORALES.**

**VISTO.-** Que se hace necesario cubrir transitoriamente el puesto de Auditor Adjunto código 542105, dotación 9, grupo A, nivel 26 con perfil lingüístico 3 preceptivo, hasta su cobertura por funcionario de carrera.

**RESULTANDO.-** Que la vía elegida para la cobertura transitoria de dicha necesidad es la de nombramiento de un funcionario interino.

**RESULTANDO.-** Que existe en el TVCP una bolsa de auditores adjuntos nivel 26 creada mediante Resolución de Presidencia nº 79/2006.

**RESULTANDO.-** Que se han realizado los llamamientos a los candidatos de dicha bolsa y ninguno de ellos ha mostrado interés por la oferta.

**RESULTANDO.-** Que existe otra bolsa de Licenciados en Económicas o en Administración y Dirección de Empresas que fue conformada para cubrir necesidades temporales de programa, funcionarios de programa nivel 21, pero en cuyas bases se previó la posibilidad de utilizarla para cobertura de puesto de auditor adjunto, nivel 26.

**CONSIDERANDO.-** Que el punto 12 de dichas bases prevé *"en su caso y si la bolsa de auditores vigente para cubrir plazas de plantilla, nivel 26 estuviera agotada ésta nueva se constituirá como bolsa de prioridad 3 en aquélla"*.

**RESULTANDO.-** Que en la referida bolsa, existen candidatos que cumplen el requisito del perfil lingüístico 3 preceptivo y tres años de experiencia en puesto similar.

Procede declarar mediante Resolución de Presidencia la bolsa de Licenciados en Económicas o en Administración y Dirección de Empresas, como bolsa de prioridad 3 para cubrir plazas de plantilla u otras necesidades temporales en puestos y tareas de nivel 26.

Ebazpen horren berri lan poltsako kide guztiei jakinarazi beharko zaie eta adierazitako lanpostua betetzeko deiak egin lanpostuaren betekizunak betetzen dituzten izangaiei.

Dicha Resolución deberá ser notificada a todos los integrantes de la bolsa y proceder a realizar los llamamientos para la cobertura del puesto indicado, con un candidato que cumpla los requisitos del citado puesto.

Eusko Legebiltzarraren 1/1988 Legearen 19. artikuluak eskuordetzen dizkidan eskumenen indarrez,

En virtud de las atribuciones que me son conferidas por el artículo 19 de la Ley 1/1988 del Parlamento Vasco

**EBATZI DUT**

**LEHENENGO.-** HKEEn Auditore Atxikitu lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda zabaltzea Ekonomian edo Administrazio eta Enpresen Zuzendaritzan Lizentziatutakoen lan poltsa osatzen duten izangaiei. Lan poltsa hori 26 mailako auditore atxikituen lan poltsan 3. lehentasuneko poltsan osatu da. Eta beharrezko diren izapideak gauzatzeko baimena ematen dut Auditore Atxikitu postua aldi baterako betetzeko, 542105 kodea, lanpostu zk. 9, A taldea, 26. maila eta derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna duena, zerrendako kideei deituta.

**BIGARREN.-** Jakinaraz biezaie Ebazpen hau legezko moldearekin Ekonomian edo Administrazio eta Enpresen Zuzendaritzan Lizentziatutakoen lan poltsa osatzen duten izangai guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 23an

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Ampliar la lista de candidatos a cubrir transitoriamente puestos de Auditor Adjunto en el TVCP, a aquéllos aspirantes que integran la bolsa de Licenciados en Económicas o en Administración y Dirección de Empresas. Se constituye dicha lista en bolsa de prioridad 3 en la bolsa de trabajo de auditores adjuntos nivel 26. Autorizando los trámites necesarios al efecto de dar cobertura temporal al puesto de Auditor Adjunto, código 542105, dotación 9, grupo A, nivel 26 con perfil lingüístico 3 preceptivo, mediante el llamamiento a los integrantes de la lista.

**SEGUNDO.-** Notifíquese la presente Resolución en legal forma a todos los integrantes de la bolsa de Licenciados en Económicas o en Administración y Dirección de Empresas.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2010

Izp./Fdo.: José Ignacio Martínez Churiaque
Lehendakaria/Presidente